

Kaixo lagun:

Independentea izateko determinazioa da KONTUZ-ek beti defendatu izan duen ezaugarria. Ez bakarrik azpiegituran eta alde ideologikoan, baita alor ekonomikoan ere. Horregatik erabaki genuen Kontsumitzaile, Zergadun eta Erabiltzaile gisara eratzea, diru-laguntzarik gabe eta soilik bazkideen eta jarraitzaileen ekarpenei esker autofinantzatuta. Laztasuna da gure gastu araua, altruismoa lan egiteko modua eta elkarlana beste elkarte eta erakundeekin harremantzeko bidea. Gure ustez, egindako lanari balio handiagoa ematen dio geure izaera horrela ulertzeak. Hain justu ere, bidesaririk ordaintzen ez dugulako baita gure lana independentea.

KONTUZ-ek garbi du hori dela jarraitu beharreko bidea. Jarduteko modu eta filosofia honek makina bat lan arrakastatsu ekarri digu kazetaritza ikerketaren alorrean, baita gizartearen kontzientzia pizteko garaian: zenbait jarrera antidemokratiko azaleratuta, epaitegietan salaketa jarrita, herritarren mobilizazioa sustatuta eta ardurak eskatuta "kosta ala kosta". Baina lan independente, soil eta altruista horrek ondorioak izaten ditu jende boteretsua agerian jartzen duzunean.

Hori bizitzen ari gara Patxi Zamora gure bozeramalearen kaleratze zentzugabea, irregularra eta justifikaezinarekin. Barne Ministerioak erabakitako kaleratzea da, Guardia zibilak agindutakoa eta AENA-k eta Iberiak gauzatu dutena. Arrazoi objetiborik ez duen prozesua da, aurrez abisatu gabea, modu formalean justifikatu ez dena eta alegaziorik aurkezteko aukerarik eman gabe. Patxi-k KONTUZ-eko bozeramale eta kide gisa izan duen funtzio aktiboarekin du soilik zerikusia honek guztiak. Aurre egin beharreko ustelkeria kasu bat gehiago da, beraz.

Kaleratze hau bideratu duten enpresa eta estamentu guztiek jakin badakite hau bidegabekeria hutsa dela baina berdin zaie eta erantzunik ez ematea da bere estrategia. Azalpenik ez ematea, atzera egin gabe, eta era horretan, epaitegietara jotzera behartu gaituzte egindakoa zuzen dadila exijitzeko. Haien ustez, diru publiko mugagabearekin prozesu hau luzatuz (baita bi urtez ere!), menpean hartuko gaituzte...

Aldiz, ez dute KONTUZ-en eta beraz babesten duten milaka eta milaka lagunen DNA ezagutzen. Gure talde juridikoaren arabera 20.000 euro beharko ditugu prozesu-kostuak, prokuradoreen ordainketak eta legelarien gastuei aurre egiteko:

- Kontentzioso Administratibo alorrean salaketa, Guardia Zibilaren kontra izanik Auzitegi Nazionalera bideratu dutena.
- Bigarren salaketa bat Auzitegi Nazionaleko Kontentzioso Administratiboan, AENA-ren kontra eginez baita ere. Aurreikuspenen arabera 12 hilabete irau dezake prozesu honek.
- Kaleratzeagatik, Iberia-ren kontrako lan epaiketa Madrilgo Gizarte alorreko epaitegian. Epaketaren data Urriaren 30-a litzateke, baina ziurrenik atzeratu egingen da beste prozesuek baldintzatuta.

- AENA-ren kontrako salaketa Madrilgo Zibil alorreko epaitegian. Prozesu-kostu handiak eragin ditzake epaiketa honek eta bi urte iraun lezake prozesu osoak.

Nolanahi, gure elkarte itotzeko estrategia hau pentsatu dutenek ez dute kontuan hartu gizarte honek antolatzeko duen gaitasuna, KONTUZ sostengatzen dutenen elkartasuna, erresistentziarako dugun gaitasuna eta lan egiteko modu honetan sinisten dugunon borroka.

EZ ZAITUZTE AINTZAT HARTU!

Hori bai, bide hauei guztiei ekiteko diru-bilketa bat egin behar izatera behartu gaituzte (Bide kontentziosoa, Lan alorrekoa, Zibila eta baliteke, beranduago bide Penaletik jo behar izatea, baita Konstituzionalera ere) . Egin diguten gaiztakeria epaitegietan frogatu ahal izateko eta horren erantzuleak ezagutzera emateko abiatu dugu Dirua biltzeko kanpainia. Horregatik eskatu nahi dugu zure laguntza eta babes. Baina araudi zehatzarekin kontrolatuko den laguntza izanen da, betiere:

- Gure kontu korrante diru-sarrerak zehatzeko izanen da:

ES80 3035 0087 05 0870053926 eta

<https://www.paypal.me/Kontuz>

- Gure web-ean publiko eginen ditugu sortzen zaizkigun gastu guztiak.
- Ustelkeria kasu honen kontra eta kanpainia honekin bat egiten duten sindikatu, alderdi politiko eta gizarte elkarten izenak jakinaraziko ditugu gure webean.
- Finkatutako helburua lortzen dugunean (20.000 euro bildutakoan) publikoki amaitu, itxiko dugu diru-bilketa kanpainia hau.
- Bildutakoa baino diru gutxiago beharko bagenu, superabit hori kontu korrante horretan gordeko dugu, etorkizunean zabal litezkeen beste prozesuen berme gisara.

Prozesu hauen guztien bilakaeraren berri zehatza emateko konpromisoa hartu du KONTUZ-ek.

Erronka berri honi aurre egiten lagundu nahi badiguzu, parte hartzera gonbidatzen zaitugu. **ZURE BABESA ETA LAGUNTZA BEHAR DUGU!!**

Rigoberta Menchú Bake nobel sariduna eta Guatemalako buruzagi indigenaren hitz hauek ekarri nahi ditugu gogora agurtu aurretik, KONTUZ-ek elkarte gisara duen filosofiaren laburpenik aproposena iruditzen zaigulako, baita gutun honen bidez igortzen dugun laguntza-eskariaren muina adierazteko modurik onena ere: "Ezin da demokrazia helmugatzat jarri, hori lortuta gero beste helburu batzuk bilatzeko. Aitzitik, soilik herritar guztiek defendatzen badute eutsi ahalko diogu demokraziari".

MILA ESKER!!!